

MIGUEL DE ORREAGA (1903-1927)

## «Historia tristea 1512ko negoziazio haiena!»

Miguel de Orreagak, edo hobeki esanda Pedro Navascuesek –horixe baita pseudonimoaren atzeko benetako egilearen izena– bizitza laburra izanagatik ikerlan garrantzitsuak utzi zituen. Iruñean jaio zen, Tuteran errotu, eta laster edan zuen abertzaletasunetik, horrek ikasketak burutzeko arazoak ekarri zizkion arren. *Amayur. Los últimos nabarros* da bere lan gailurra. 1923an argitaratu zuen, euskaroak Víctor Praderarekin eta *Diario de Navarra* egunkariaren inguruan biltzen zirenekin eztabaida sutsuan zeudenean Amaiurren egindako monumentua zela-eta. Navascuesek 19 urte besterik ez zituen, eta Campionen esanetan –liburuaren hitzaurrea berak idatzi zuen– Amaiurren gertatutakoaz ikerlan zabalagoa egin nahi zuen arren, azkenean herritar xumearentzako ulergarria izango zen sintesi bat aurreratu zuen, eztabaidan mailu-kolpea jotzeko. Baita ederki jo ere.

Dena den, zorroztasuna dario Navascuesen *Amayur*-i eta seinale da dokumentazio argitaragabea izan zuela esku artean. Hara zer idatzi zion behin Nafarroako Diputazioko artxibozainari: “Badakizu dibulgaziozkoak izanagatik ere, lan hauek dokumentatu egin behar direla; Praderaren okerreie egia kontrajarri behar diegu, eta frogatu, ez baita nahikoa baieztapenak egitea”. Lastima hain goizik hil zela, 24 urterekin tuberkulosiak eraman zuen.



JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

**Napar askatasunaren alde Amayurko echarrian borroka egin zuten gizonai. Betiko argia. 1522. Amaiurko monolitoko leloa.**

“Ni ez naiz Nafarroako azken erregeen jarreraren panegirista; soilik diot, haiek, kinkan zeuden Frantziako euren Estatuak<sup>7</sup> mantendu nahian, eta agian aurreiritzi galiarrak buruan sartuta zituztela, Egoitza Santuaren etsai batekin aliatu zirela esandako baldintzetan, baina geroago ikusiko dugun bezala, beti aldarrikatu zuten Elizarekiko euren maitasuna, Julio II.a Aita Santua aitortu zuten, eta ez zuten Pisako kontziliabulu<sup>8</sup> zismatikoan parte hartu nahi izan. Nirekin daude idazle nafar guztiak, sekularrak, erlijiosoak, eta atzerritar asko ere bai. (...)”

Historia tristea Nafarroarentzat 1512 urteko negoziazio haiena! Erreinua eskrupulu gutxi eta botere askoko bi etsai horien erdian kokaturik, haien arteko desadostasunetan parte hartu zuen. Monarka nafarrek nahi izan zuten biekin neutral mantendu, baina Gaztelak eskatzen zuen Erreinitik pasaleku bat, eta Frantziak nafarrek ingelesei gerra deklaratzeari. On Joanes Albretekoak bigarren nazioarekin egin zuen ituna<sup>9</sup>, eta On Fernando bere Estatuaren gainera jaurti zen”.

7- Biarnoia, Bigorra, Foix, Albret, Marsan, Armagnac, Limoges, Périgord, Rodez, Alençon... Horietaiko konderrri eta dukerri batzuen gaineko kontrola ez zen erabatekoa, konpartitua baizik.

8- Pisako kontzilioa 1511n antolatu zuen Luis XII.a Frantziakoak Julio II.a Aita Santuaren kontra egiteko. Honek “kontziabulu” mailan jarri zuen batzar hura eta baliogabetu egin zuen.

9- Blois-eko itunaz ari da, Nafarroako erregeek Luis XII.aren 1512ko uztailaren 18an sinatua. Bertan, besteak beste, *lagunen lagun eta etsaien etsai* printzipioa onartu zuten.